VILLAVA ATARRABIA

145 | IRAILA 2018 SEPTIEMBRE

Atarrabiako udal informazio aldizkaria

Boletín de información municipal de Villava

26 ETXE BELTZA

Euskal kulturaren alde

ETXE BELTZA

Por la cultura vasca

16

60 urtetik gorakoak "mugitzen dira"

La gente mayor de 60 "se mueve"

13

Erraldoiak eta Banda, 2018ko Jaien iragarle

Los Gigantes y la Banda anuncian las Fiestas 2018

HEMEN GAITUZU / SÍGUENOS EN:

www.villava.es

Twitter (municipal)

Facebook
(Berdintasuna-Igualdad / Kirolak-Deportes / Kultura-Cultura)

EGIN ZAITEZ AUAKO HARPIDEDUN! / SUSCRÍBETE AL BIM

145

IRAILA
2018
SEPTIEMBRE

ATARRABIAKO
UDAL INFORMAZIO
ALDIZKARIA

BOLETÍN
DE INFORMACIÓN
MUNICIPAL
DE VILLAVA

AURKIBIDEA | ÍNDICE

BILKURAK | PLENOS 4
INFORMAZIO OROKORRA | INFORMACIÓN GENERAL 6
EUSKARA | EUSKERA 9
GIZARTE ZERBITZUAK | SERVICIOS SOCIALES 10
HEZKUNTZA | EDUCACIÓN 11
BERDINTASUNA | IGUALDAD 12
JAIAK | FIESTAS 13
KIROLAK | DEPORTES 14
KULTURA | CULTURA 19
GAZTERIA | JUVENTUD 22
KOLEKTIBOAK | COLECTIVOS 24
AGENDA 30

- Kontuz! Obrak! 6
- 2017ko udal kontuak 8
- Jantoki bekak 8
- Haur eta gazteendako tailerrak 9
- Gazte Festak bi gune izanen ditu gazteentzat 10
- Biodantza Taillerra 8
- Jaietako txupinazoa 13
- Berria! Psikomotrizitatea eta Kirol-anitzak 14
- "Justizia, egia eta ordaina" jardunaldia 18
- "Justizia, egia eta ordaina" jardunaldia 18
- Haurrendako tailerrak 2018-19 ikasturtean 21
- Pasarelas ekimena bueltan dator 22
- Agenda 15
- ¡Cuidado!, ¡Obras! 6
- Las cuentas municipales de 2017 8
- Becas comedor 8
- Talleres para niños/as y jóvenes 9
- La Gazte Festa contará con dos espacios para jóvenes 10
- Taller de biodanza 12
- Txupinazo de Fiestas 13
- ¡Novedad! Psicomotricidad y multideporte 14
- Jornadas "Justicia, verdad y reparación" 18
- Talleres infantiles curso 2018-19 21
- El programa Pasarelas está de vuelta 22
- Agenda 15

Argitaratzailea / Edita: Atarrabiako Udala / Ayuntamiento de Villava
Erredakzio Kontseilua / Consejo de Redacción: Mikel Oteiza, Consuelo Satrústegui, Sandra Rodríguez, Rubén Oneca, Laura Curiel, Laia Prat

Argazkia / Fotografía: Iñaki Porto, Antonio Olza
Itzulpena / Traducción: Kike Diez de Ulzurrun
Egilea / Realiza: Heda Comunicación

Inprimatzailea / Imprime: Idazluma
Ale kopurua / Tirada: 4.400
LG / D.L.: NA 1223-1996
Doako banaketa / Difusión gratuita

MIXTO
Papel procedente de fuentes responsables
Papera ingurumena zainduz sortua
FSC® C021816

ATARRABIA SOSTENIBLE IRAUNKORRA · EREMU BABESTUA ESPACIO PROTEGIDO

ATARRABIA IRAUNKORRA | **ATARRABIA SOSTENIBLE**

Cuidemos nuestro pueblo

Convivir es una tarea de toda la ciudadanía

Zain dezagun gure herria

Bizikidetza denon zeregina da

Leku berean bizi gara elkarrekin: gure udalerrian, alegia. Hori dela eta, herritar guztiok gizalegez jokatzeko ardura dugu, Atarrabia herri atseginagoa, abegikorragoa eta jasangarriagoa izan dadin, bai bizitzeko bai elkarbizitzeko, betiere gure egunerokoan, elkarrizketa, tolerantzia eta errespetua oinarri hartuta.

Compartimos un mismo espacio: nuestro municipio. Por este motivo, toda la ciudadanía tiene la responsabilidad de contribuir con actitudes cívicas a que Atarrabia sea un pueblo más amable, acogedor y sostenible para vivir y convivir y en el que el diálogo, la tolerancia y el respeto formen parte del comportamiento cotidiano.

Animaliak babestu eta edukitzea

Udalak ordenantza berria onetsiko du irailean, bi helbururekin: batetik, jendearen osasuna eta segurtasuna bermatzea, eta bestetik, animaliak babestea.
Hortaz, etxeko nahiz lagun egiteko animaliak arautuko dira, bai eta gida-zakurrak ere, eta bi motatako animalia arriskutsu jasoko ditu: espezie edo arraza jakin batekoak izateagatik heriotza edo kalteak eragin ditzaketenak, eta beren joera erasokorragatik, tamainagatik edo masailezurren indarragatik, heriotza edo kalteak eragiteko gai direnak.

Protección y tenencia de animales

El ayuntamiento va a aprobar en septiembre una nueva ordenanza con un doble objetivo: garantizar la salud y seguridad de las personas, por un lado, y proteger a los animales, por el otro.
La normativa incluye la regulación de animales domésticos, de compañía y perros guía, y recoge dos tipos de animales peligrosos: los que por pertenecer a una especie o raza pueden causar muerte o daños, y los que dentro de una tipología racial, por su carácter agresivo, tamaño o potencia de mandíbula, tengan capacidad de causar muerte o daños.

EMAKUMEAK | ELLAS

Atarrabiak beti sentiberatasun handia erakutsi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, bai eta memoriaren alde ere; bada, bi gai horiek atal honetan uztartu ditugu. Ez da, dena den, begirada malenkoniatsua. Izan ere, parez pare jarri nahi ditugu Atarrabiako iraganeko emakumeen irudi bat eta eite bereko egungo irudi bat, baina garai eta balio berriei lotua. Hasteko eta bat, elkarte mugimenduari helduko diogu: "Las Margaritas", 30eko hamarkadakoak, eta egungo Mandrake Elkarte eragilea.

Las Margaritas

Las Margaritas elkarte tradizionalista izan zen, Zirkulu Karlisten emakumezkoen atala izan baitzen, eta 1931tik 1937ra aritu zen. Estatutuen arabera, honatx helburu nagusia: "beharrean dauden familia tradizionalistei laguntza ematea". Kultur ekitaldiak egiten zituzten, eta batez ere, erlijiosoak. 1936tik aurrera, fronteetako ospitaleetan lagundu zuten, haur umezurtzak babesteaz gainera.

Informazioa "Atarrabiako Emakumeen historia. Eraldaketak, erresistentziak eta hausturak XX. mendean" liburutik atera dugu.

Las margaritas

La asociación tradicionalista **Las Margaritas**, sección femenina de los Círculos carlistas, desarrolló su actividad entre 1931 y 1937. Su objetivo principal fue, según sus estatutos, "socorrer a las familias tradicionalistas que se hallen necesitadas". Celebraban actos culturales y sobre todo religiosos. A partir de 1936 ayudan en hospitales del frente, asisten a los combatientes y amparan a niños y niñas huérfanos.

Información extraída de "Historia de Mujeres en Villava. Transformaciones, resistencias y rupturas en el siglo XX"

ELKAR-TEAK
ASOCIA-CIONES

Villava siempre ha mostrado una gran sensibilidad por la igualdad entre mujeres y hombres y por la memoria, dos asuntos que confluyen en esta sección. No es una mirada nostálgica, en todo caso. El objetivo es confrontar una imagen de mujeres de Villava del pasado con una imagen actual de naturaleza equivalente, aunque ligada a los nuevos tiempos y a los nuevos valores. Comenzamos con el asociacionismo: "Las Margaritas" de los años 30, frente a la activa Asociación Mandrake.

Mandrake
ATARRABIAKO EMAKUME ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUJERES DE VILLAVA

Mandrake emakume elkartea 2015ean sortu zen, emakumea ahalduntzeko, ekofeminismoa bultzatzeko eta emakumearen kultur sustapena eragiteko. Besteak beste, tailerrak, erakusketak, lehiaketak, eta hiri-baratzeak jartzeko proiektuak antolatzen ditu.

La asociación de mujeres **Mandrake** nació en 2015 con los objetivos de trabajar en el empoderamiento de la mujer y fomentar el ecofeminismo y la promoción cultural de la mujer. Organiza, entre otras actividades, talleres, exposiciones, concursos, proyectos de huertas urbanas...

OSOKO BILKURAK | PLENOS

OSOKO BILKURA ARRUNTA

2018ko MAIATZAREN 29a

Nasuvinsaren eta udal interesatuen arteko lankidetza-hitzarmena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak Nafarroan 2018tik 2021era sustatzeko. Osoko bilkurara udalbatzako kide guztiak bertaratu ziren. Aho batez onetsia.

Aurrekontuak aldatzeko 3. espedientea: kreditu-transferentzia eta kreditu-sorkuntza Kirol Martiket 2015 S.L. enpresa publikoaren diru galerei aurre egiteko. Horrela, bi partidatako 34.000,52 euro erabili dira: batetik, 10.000 €, funtzionarioen montepioendako nahiz familiei laguntzeko 875.000 euroko partidatik, eta 24.000,52 euro, berriz, Udalek Amalur Haur Eskolari emandako partidatik. Izquierda-Ezkerrak emendakina aurkeztu zuen Udalek Amalur Haur Eskolari emandako partidako diru-transferentziaren aurka, eta galerak Kirol Martiketeko baliabideekin beraiekin finantzatzearen alde. Bozketa eginda, emendakina errefusatu zen, 2 boto izan baitziren alde (Izquierda-Ezkerra), eta 15, kontra. Aurrekontuko aldaketa bozkatuta, onetsi zen, 15 boto izan baitziren alde, eta 2 kontra (Izquierda-Ezkerra).

Atarrabia Geroa Bairen mozioa, ETAren komunikatuaren karira. Udalbatzak Atarrabia Geroa Bairen mozioa onetsi zuen, 9 boto izan baitziren alde, eta 8 abstentzio (EH BILDU). Udalak, beraz, ETAk egindako atentatuak oro gaitzetsi, eta aitortza, justizia eta ordaina eskatu du ETAren indar keriak eragindako biktima guztientzat.

UPNren mozioa ETAren desegitearen karira. Atarrabia Geroa Baik emendakin bat aurkeztu zuen, UPNren mozioaren hirugarren puntua aldatzeko. Honatx puntua: plaka bat paratuko da udaletxeko fatxadan ETAren biktima guztien oroitzapenetan. Emendakinak, ordea, hauxe proposatu zuen: ekitaldi bat egitea indarkeria politikoaren biktima guztiak aitortzeko. Emendakina bigarren bozketan onetsi zen, alkatearen kalitateko botoari esker (4 boto alde, hau da, Atarrabia Geroa Bai eta alkatea; eta 3 boto kontra, UPN, eta 10 abstentzio). Mozio guztia bozkatuta (hirugarren puntua aldatuta), atzera bota zen, 7 boto izan baitziren alde (UPN, Atarrabia Geroa Bai eta Laura Curiel zinegotzi atxiki gabea), eta 10 kontra, (EH BILDU eta Izquierda Ezkerra).

Atarrabia Geroa Bairen mozioa ekainaren 2ko manifestazioaren karira, "Berdintasunezko etorkizun baten alde". Osoko bilkurak Atarrabia Geroa Bairen mozioa onetsi zuen, 14 boto izan baitziren alde, eta 3 kontra (UPN). Honatx mozioaren edukia: Udalak auzokide guztien hizkuntza-eskubideak bermatuko dituzten hizkuntza-politikak egiten segituko du; eta Nafarroako erakunde publiko guztiak premiatuko ditu lanean segitzera, eskubide horiek Nafarroako herritar guztientzat bermatzeko; Udalaren hizkuntza-politikaren printzipioak bat heldu dira Nafarroako Gobernuak darabiltzanekin (mailakako politika egitea, egoera soziolinguistiko ezberdinetara egokitua, behar bezalako lege-babesarekin, herritar guztien hizkuntza-eskubideetan aitzina egiteko). Udalak, gainera, adierazi nahi du Nafarroan ez dagoela hizkuntza-politika bidezkorik euskararik gabe, eta are gutxiago, euskararen kontra.

UPNren mozioa manifestazioaren inguruan. UPNk mozio bat aurkeztu zuen Iruñeko ekainaren 2ko manifestazioarekin bat egiteko (""Berdintasunezko etorkizun baten alde" lelopean) eta auzokideak oro manifestaziora joatera animatzeko. Udalbatzak mozioa atzera bota zuen, 3 boto izan baitziren alde (UPN), eta 14, kontra.

OSOKO BILKURA ARRUNTA

2018ko EKAINAREN 26a

Akordioa izan da Udaleko funtzionarioen eta administrari kontratatuen enplegu baldintzez. Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Laura Curiel zinegotzi atxiki gabea izan ezik. Osoko bilkurak akordioa onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde, eta 5 abstentzio (UPN eta Izquierda-Ezkerra).

Hitzarmen kolektiboa, Udaleko lan kontratudunen enplegu baldintzez. Osoko bilkurak akordioa onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde, eta 5 abstentzio (UPN eta Izquierda-Ezkerra).

Esleipena Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, berdintasun teknikarien zerrenda kudeatu dezan. Osoko bilkurak esleipena aho batez onetsi zuen.

Kontuak ixteko espedientea. Udalbatzak aho batez onetsi zuen 2017ko kontuen itxiera.

Aurrekontuak aldatzeko espedienteak: 4. (usoen aurkako sareak), 5. (Lorenzo Goicoa margotzea), 6. (udaleko kirol instalazioen berrikuntza) eta 7. (erretiratuen elkartea, Gaztelan). Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen aurrekontua aldatzeko 4. espedientea; horrekin bat, 19.000 euro erabiliko dira usoen aurkako sareak ikastetxeetan paratzeko, diruzaintzako gerakinaren kargura. Gainerako aldaketak ere aho batez onetsi ziren; hots, 5., 12.000 euro Lorenzo Goicoa ikastetxeko ikasgelak margotzeko, diruzaintzako gerakinaren kargura; 6. aldaketa, 257.272,25 euro kirol instalazioetara bideratzeko, gastu orokorretarako eta baliabide atxikietarako diruzaintzako gerakinaren kargura; 7. aldaketa, 15.000 euro erretiratuen elkarteko tabernako kontratua likidatzeko, diruzaintzako gerakinaren kargura.

Jantokiko bekak, oinarriak. Aho batez onetsiak.

Mandrakeren mozioa, Manadaren epaiketaren inguruko azken erabakiak direla eta. Osoko bilkurak mozioa aho batez onetsi zuen, Manadaren biktimaren alde nahiz Alicia Aristregui eta Nagore Laffageren alde (azken horren erailketaren hamargarren urtemugan), bai eta sistema patriarkalaren biktima guztien alde ere, emakume eta haurren abusua eta erailketak bukatze aldera, justiziaren aplikazio patriarkalarengatik; era berean, gobernu-botereei galdatuko zaie legeak bere osoan aldatzeko, eta premiaz eta atzerapenik gabe indarkeria sexistan aplikatzeko.

Udalaren adierazpena Dibertsitate Sexualaren Nazioarteko Egunaren karira (ekainak 28). Udalbatzak adierazpen instituzional bat onetsi zuen aho batez. Udalak lan eginen du, eskubide berdintasunaren aldeko borrokan erakunde eredugarria izateko, eta sexu-joera, sexu-identitate, genero-identitate edo genero-adierazpen arloko arrazoiengatik inor ez baztertzearen alde. Behar diren ekintzak bultzatuko ditu sexu eta genero dibertsitateari loturiko bazterkeria mota ororen aurka borrokatzeko; sexu eta genero dibertsitatearen aldeko eta LGTBI pertsonak ez baztertzeko politiketan inbertitu beharra aitortu du, arreta, informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio programak garatuz, Iruñea leku segurua izan dadin pertsona bakoitzaren sexu dibertsitateaz askatasunez gozatzeko; giza eskubideekiko konpromisoa berretsi du eta, horren ondorioz, pertsonen arteko egiazko berdintasunaren aldeko printzipioarekiko konpromisoa ere (horren baitan sexu eta genero dibertsitatea baitago), eta tinko segituko du aurrerantz, egun oraindik ere dirauten hesiak gainditzeko; eta beren sexu-joera, sexu-identitate, genero-identitate edo genero-adierazpenengatik erasotuak, mespretxatuak edo baztertuak izan diren pertsona guztiekin bat egin nahi du, eta elkartasuna agertu, horrelako jokaerak eta egoerak ezabatzearen aldeko borroka eginen duela adierazita.

OSOKO BILKURA ARRUNTA

2018ko UZTAILAREN 31

Udalaren zerbitzuko langileen ordainsarien gehikuntza. Zinegotzi guztiak bertaratu zirela, 2018rako ezarritako ordainsarien gehikuntza-portzentaje handiena igotzea onetsi zuen Osoko bilkurak aho batez udal enplegatuentzat; hots, % 1,5. Igoerak 2018ko urtarrilaren 1etik hartuko du indarra; eta 2018ko uztailaren 1az geroztik, soldata beste % 0,25 ere igoko da; igoera enplegatu guztiei ezarri zaie, funtzionarioak, lan kontratudunak, kontratatu administratiboak edo aldi baterakoak izan; eta behar den aldaketa eginen da aurrekontuetan, erabaki honetan adierazitakoa egiazki bete dadin.

Esku-hartzeko protokoloa, lan-inguruneko jazarpenaren aurka. Udalbatzak puntu hori aho batez onetsi zuen.

Aurrekontuak aldatzeko 8., 9. 10. eta 11. espedienteak, guztiak ere Udalak aho batez onetsiak, eta diruzaintzako gerakinaren kargura joanen direnak. Hona hemen: 8. aldaketaren arabera, 40.000 euro bideratuko dira UC4 hirigintza-hitzarmenera; 9. aldaketaren arabera, 170.000 euro bideratuko dira karrikak zolatu eta asfaltatzera; 10. aldaketaren arabera, 10.000 euro erabiliko dira hiri-altzariak birjartzeko, eta 11. aldaketaren arabera, 5.400 euro erabiliko dira Udalaren zerbitzuko langileen ordainsariak % 0,25 handitzeko, 2018ko uztailaren 1az geroztik.

Microfides-i baimena eman zaio, Fiare Banku Etikoan dagoen gordailuak Ekuadorreko Jardín Azuayo izeneko mikrokreditu proiektuaren mailegua abalatu dezan. Udalbatzak baimena aho batez onetsi zuen; beraz, Atarrabiako Udalak Fiare Banku Etikoan duen 25.000 euroko gordailua erabiliko da Ekuadorreko Jardín Azuayo izeneko mikrokreditu proiektuaren mailegua hiru urtez abalatzeko.

PLENO ORDINARIO

29 DE MAYO 2018

Convenio de colaboración entre Nasuvinsa y los ayuntamientos interesados para promover la eficiencia energética y las energías renovables en Navarra en el periodo 2018-2021. Sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal. Aprobada por unanimidad.

Expediente de modificación presupuestaria nº 3, transferencia de crédito y generación de crédito para atender las pérdidas de la empresa pública Kirol Martiket 2015 S.L. La propuesta de modificación consistía en transferir 10.000 de la partida de 875.000 euros destinados a Montepíos funcionarios y Ayuda familiar y otros 24.000,52 euros de la partida de aportación de los Ayuntamientos a la escuela Infantil Amalur –en total 34.000,52 euros– para atender las pérdidas de la empresa pública Kirol Martiket 2015 S.L. Izquierda-Ezkerra presentó una enmienda para rechazar la transferencia de la partida de aportación de los Ayuntamientos a la escuela infantil Amalur y proponer que las pérdidas se financiaran con los propios recursos de Kirol Martiket. Sometida a votación la enmienda, fue rechazada por 2 votos a favor de Izquierda-Ezkerra y 15 en contra. Sometida a votación la modificación presupuestaria, fue aprobada por 15 votos a favor y 2 en contra de Izquierda-Ezkerra.

Moción de Atarrabia Geroa Bai ante el comunicado de ETA. El Pleno aprobó por 9 votos a favor y 8 abstenciones de EH BILDU la moción presentada por Atarrabia Geroa Bai para condenar todos los atentados cometidos por ETA y pedir reconocimiento, justicia y memoria para todas las víctimas de la violencia de ETA.

Moción de UPN sobre la disolución de ETA. Atarrabia Geroa Bai presentó una enmienda para sustituir el tercer punto de la moción de UPN que instaba a colocar una placa en la fachada consistorial en recuerdo a todas las víctimas de ETA por un acto de reconocimiento a todas las víctimas de la violencia política. La votación fue aprobada en segunda votación con el voto a favor del alcalde (4 votos a favor de Atarrabia Geroa Bai y el del alcalde, 3 votos en contra de UPN y 10 abstenciones). Sometida a votación la moción en su totalidad con la sustitución del punto tercero incluida fue rechazada por 7 votos a favor de UPN, Atarrabia Geroa Bai y la concejal no adscrita Laura Curiel y 10 en contra de EH BILDU e Izquierda Ezkerra.

Moción de Atarrabia Geroa Bai ante la manifestación del 2 de junio "Por el futuro de todos en igualdad". El Pleno aprobó por 14 votos a favor y 3 en contra de UPN la moción de Atarrabia Geroa Bai para que el Ayuntamiento siga impulsando políticas lingüísticas que garanticen los derechos lingüísticos de todos sus vecinos y vecinas e inste a todas las instituciones públicas de nuestra comunidad a seguir trabajando en garantizar esos derechos para toda la ciudadanía de Navarra; para exponer los principios de la política lingüística del Ayuntamiento acorde con la del Gobierno de Navarra (progresiva y adaptada a la realidad de las diferentes situaciones sociolingüísticas y con la cobertura normativa adecuada para avanzar en los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía; y para expresar que en Navarra no es posible una política lingüística justa sin el euskera y mucho menos en contra del euskera.

Moción de UPN sobre el futuro de todos en igualdad. Esta moción para adherirse a la manifestación del 2 de junio en Pamplona con el lema "Por el futuro de todos en igualdad" e invitar al vecindario a acudir a la manifestación fue rechazada por 3 votos a favor de UPN y 14 en contra.

PLENO ORDINARIO

26 DE JUNIO 2018

Acuerdo sobre condiciones de empleo del personal funcionario y contratado administrativo del Ayuntamiento. En una sesión a la que asistió toda la Corporación excepto la edil no adscrita Laura Curiel, el Pleno aprobó este acuerdo por 11 votos a favor y 5 abstenciones de UPN e Izquierda-Ezkerra.

Convenio colectivo sobre las condiciones de empleo del personal contratado laboral del Ayuntamiento. Aprobado por 11 votos a favor y 5 abstenciones de UPN e Izquierda-Ezkerra.

Encomienda al SNE (Servicio Navarro de Empleo) de la gestión de la lista de agentes de igualdad. El Pleno aprobó por unanimidad esta encomienda.

Expediente de cierre de cuentas 2017. Aprobada por unanimidad.

Expedientes de modificación presupuestaria 4 (redes antipalomas), 5 (pintura Lorenzo Goicoa), 6 (reforma instalaciones deportivas municipales), 7 (club jubilados Gaztelan). El Pleno aprobó por unanimidad la modificación presupuestaria nº 4 para destinar 19.000 euros a la instalación der redes antipalomas en los colegios con cargo al remanente de tesorería; la modificación presupuestaria nº 5 para asignar 12.000 euros para el pintado de las aulas del colegio Lorenzo Goicoa con cargo al remanente de tesorería; la modificación presupuestaria nº 6 para destinar 257.272,25 euros a las instalaciones deportivas con cargo a los remanentes de tesorería para gastos generales y para recursos afectos; la modificación presupuestaria nº 7 para asignar 15.000 euros a la liquidación del contrato del bar del club de jubilados con cargo al remanente de tesorería.

Bases becas comedor. Aprobadas por unanimidad.

Moción de Mandrake ante las últimas decisiones sobre el juicio de la Manada. El Pleno aprobó por unanimidad la moción de Mandrake para apoyar un manifiesto oficial en apoyo de la víctima de la Manada, de Alicia Aristregui, Nagore Laffage (en el décimo aniversario de su asesinato) y de todas las víctimas del sistema patriarcal como paso para terminar con el abuso y asesinato de mujeres y niños por una aplicación patriarcal de la justicia; y para exigir a los poderes gubernamentales la reforma integral de las leyes en violencia sexista, sin dilataciones y de forma urgente.

Declaración institucional con motivo del Día Internacional de la Diversidad Sexual (28 de junio). Aprobada por unanimidad una declaración institucional para trabajar para ser una institución ejemplar en la lucha por la igualdad de derechos y la no discriminación por motivos de orientación sexual, identidad sexual, identidad de género o expresión de género; impulsar las acciones necesarias encaminadas a luchar contra cualquier tipo de discriminación relacionada con la diversidad sexual y de género; reconocer la necesidad de invertir en políticas en favor de la diversidad sexual y de género y la no discriminación de las personas LGTBI a través del desarrollo de programas y proyectos de atención, información, formación y sensibilización que haga de Pamplona un espacio seguro para el libre disfrute de la diversidad sexual de cada persona; reafirmar el compromiso con los derechos humanos y, en consecuencia, con el principio de igualdad efectiva entre las personas, del que forma parte la diversidad sexual y de género y reiterar la firme determinación de avanzar en la superación de las barreras que aún perviven hoy en día; y olidarizarse y acompañar a todas las personas agredidas, menospreciadas o discriminadas de una u otra manera por su orientación sexual, identidad sexual, identidad de género o expresión de género y luchar por la erradicación de estas conductas y situaciones.

PLENO ORDINARIO

31 DE JULIO DE 2018

Incremento de retribuciones del personal al servicio del Ayuntamiento. Con asistencia de todos los concejales, el Pleno aprobó por unanimidad incrementar a los empleados del Ayuntamiento el porcentaje máximo global de incremento de las retribuciones establecido para 2018, que se concreta en el 1,5%, con efecto de 1 de enero de 2018; incrementar, con efecto de 1 de julio de 2018, otro 0,25 % de incremento salarial; aplicar el incremento a todo el personal empleado cualquiera que sea la naturaleza de su relación (funcionarial, laboral, contratación administrativa o eventual); y realizar la modificación presupuestaria oportuna para dar efectividad a lo expresado.

Procedimiento de intervención ante el acoso en el entorno laboral. Aprobado por unanimidad.

Expedientes de modificación presupuestaria nº 8, 9 10 y 11. Aprobado por unanimidad el expediente de modificación presupuestaria nº 8 para destinar 40.000 euros con cargo al remanente de tesorería al convenio urbanístico UC4; la nº 9 para asignar 170.000 euros con cargo al remanente de tesorería a la pavimentación y asfaltado de calles; la nº 10 para destinar 10.000 euros con cargo al remanente de tesorería para la reposición del mobiliario urbano; y la nº 11 para asignar 5.400 euros con cargo al remanente de tesorería para aumentar las retribuciones del personal al servicio del Ayuntamiento un 0,25% desde el 1 de julio de 2018.

Autorización a Microfides para que el depósito en la Banca ética Fiare avale el préstamo del proyecto microcréditos Jardín Azuayo de Ecuador. El Pleno aprobó por unanimidad la autorización a Microfides para que el depósito de 25.000 euros que tiene el Ayuntamiento en la Banca ética Fiare avale el préstamo del proyecto microcréditos Jardín Azuayo de Ecuador para un periodo de tres años.

Kontuz! Obrak!

¡Cuidado!, ¡obras!

Uda garai ona izaten da ikastetxeetako instalazioetan obrak egiteko, oporrak direnez itxita daudelako, bai eta kanpoaldeko azpiegituretan ere, argi naturalaren aprobetxamendua handiagoa denean. Hona hemen Atarrabian egindako hobekuntza batzuk edota hasteko zorian dauden lan zenbait.

El verano es una buena época para acometer obras que afectan a instalaciones educativas, sin actividad en vacaciones, o a insfractuturas de exterior, cuando el aprovechamiento de luz natural es mayor. Estas son algunas de las mejoras realizadas, o a punto de comenzar, en Villava.

ANDRESZAR KALEA. Aparkalekuak bestela antolatu dira, autoak lerroan uztetik erdi-baterian aparkatzera pasatu baita bi norabideetan (80 leku inguru). Errai batean ibili ahalko da norabide bakoitzean.

CALLE ANDRESZAR. Se ha modificado la disposición de los aparcamientos: de plazas en línea a plazas en semi-batería en ambos sentidos (cerca de 80 plazas). Se podrá circular en un carril en cada sentido.

AMALUR HAUR ESKOLA. Hobekuntzak bi alditan eginen dira. Orain, sarbidea birmoldatzen ari dira; zehazki, arrapala handiagoa eta ez hain maldatsua jartzen ari dira. Aldaketa horri esker, sarreran atondo gisako bat sortuko da, eta horrela, barnealdea ez da horrenbeste hoztuko ateak ireki eta ixtean. Gainera, sarbidearen ondoan, barruti bat moldatuko da haur-aulkitxoak uzteko eta barnera ez sartzeko, horrek tokia kentzen duelako.
Bigarren fasea Eguberrietan eginen da eta patiora ematen duten zuraje guztiak aldatu eta, haien ordez, hobeki isolatzen duten zurajeak paratuko dira. Era berean, pabes-eremuak kendu eta, haien ordez, beira gardenak jarriko dira, toki gehiago izateko eta zabaltasun handiagoko sentsazioa eragiteko.

ESCUELA INFANTIL AMALUR. Las mejoras se van a llevar a cabo en dos fases. En la primera se está remodelando el acceso instalando una rampa de mayores dimensiones y con menos pendiente. Esta modificación va a permitir generar un zaguán de acceso que reducirá la bajada de temperatura en invierno al abrir y cerrar las puertas. Además, se habilitará un recinto junto al acceso para dejar la silletas y evitar que éstas se introduzcan al interior, con la consiguiente pérdida de espacio que ello provocaba.
La segunda fase, que se acometerá en Navidades y consistirá en la sustitución de la totalidad de las carpinterías que dan hacia el patio. Se colocarán otras con un mejor aislamiento. Asimismo, se van a eliminar las zonas de pavés por vidrios transparentes para ganar espacio y conseguir una sensación de mayor amplitud.

AG CONSTRUCCIONES
VISITE NUESTRA TIENDA DE EXPOSICIÓN Y VENTA
PIDA PRESUPUESTO SIN COMPROMISO
ALBAÑILERÍA Y REFORMAS • VIVIENDAS, LOCALES, COMUNIDADES
PROYECTOS DE DECORACIÓN Y DIRECCIÓN DE OBRA
COORDINACIÓN DE TODOS LOS GREMIOS
Av. Bidaburua, 2 (Villava-Atarrabia) • Tel. 948 130 655 - 646 553 448
www.agconstruccionesyreformas.com

SAN ANDRES-ATARRABIA, SERAPIO HUICI ETORBIDEA (BIDABURUA ETA BURLADA ARTEAN) ETA EZKABA KALEAREN ARTEKO ERROTONDA. Asfaltoa berrituko da, baina ez da hiri-altzarietan esku hartuko. Oinezkoendako pasabideak eta seinale horizontalak birmargotuko dira.

ROTONDA SAN ANDRÉS-ATARRABIA, AVENIDA SERAPIO HUICI (ENTRE BIDABURUA Y BURLADA) Y CALLE EZKABA. Se renovará el asfaltado, pero no se intervendrá sobre el mobiliario urbano. Se repintarán pasos de peatones y señalización horizontal.

ATARGI. Atargi lehen hezkuntzako ikastetxe publikoan, sarbidea birmoldatzeko lanak egin dira, oztopo arkitektonikoak kentze aldera. Halaber, komun batzuk berritu dira irisgarritasun araudira egokitzeko, eta kanpoaldeko zuraje batzuk ere aldatu dira udal dotazioen araudira moldatzeko (2017-2019ko Toki Inbertsiorako Planaren barnean). Zuraje berezien aldaketari esker, eraikina eragingarriagoa izanen da energiari dagokionez.

ATARGI. En el colegio público de Primaria Atargi se han acometido la remodelación del acceso para la eliminación de barreras arquitectónicas, la reforma de parte de los aseos para adaptarlos a la normativa de accesibilidad y la sustitución parcial de las carpinterías exteriores para adecuarlas a la normativa de dotaciones municipales (dentro del Plan de Inversión Local 2017-2019 (PIL 2017-2019). Este cambio de carpinterías especiales mejorará la eficiencia energética del edificio.

ERRETIRATUEN ELKARTEA. Sarbidea birmoldatu eta arrapala bat paratuko da Udaletxe Plazarantz. Barnealdean, berriz, beirate bat jarriko da taberna-eremua bi zatitan bereizteko: bata, erretiratuek erabiltzeko (erretiratuen elkarteari lotua), eta bestea, berriz, zuzenean tabernari lotua.

CLUB DE JUBILADOS. Se va a remodelar el acceso y se va a colocar una rampa hacia la Plaza Consistorial. En el interior, se va a habilitar una separación acristalada para dividir el espacio del bar en dos partes: una para uso de los jubilados (vinculada al club de jubilados), y la otra vinculada directamente al bar.

Iruñerriko Mankomunitatearen obrak

UR-BILTEGI BAT EZABATUKO DA. Iruñerriko Mankomunitateak Ezkaba mendiaren magalean dauden bi ur-biltegietako bat ezabatuko du; ez batak, ez besteak, ez dute zerbitzurik ematen. Bigarrena Udalari utzi zaio.

OBRAK PILATEGIAN. Ubidearen zati bat berreraikiko da, erori egin baitzen azken uholdeek eraginda. Horma berri bat egin, eta eroritako zutabeak berriz ere eginen dira. Lanak Iruñerriko Mankomunitateak eginen ditu, Udalaren eta Mankomunitatearen arteko hitzarmenari esker.

Obras de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona

ELIMINAR UNO DE LOS DEPÓSITOS DE AGUA. La Mancomunidad de la Comarca de Pamplona eliminará uno de los dos depósitos de agua fuera de servicio existentes en la ladera norte del Monte Ezkaba. El segundo (en la imagen) ha sido cedido al Ayuntamiento.

OBRAS EN EL BATÁN. Se restituirá parte del canal que, debido a las últimas avenidas del río, se vino abajo. Se recalzará el muro, y se volverán a ejecutar los pilares caídos. La obra correrá a cargo de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona en base a un convenio entre el Ayuntamiento y la Mancomunidad.

2017ko udal kontuak

AURREKONTUEN AZKEN EMAITZA 616.269,67 € IZAN ZEN. Diruzaintzako gerakina, guztira, 1.159.403,29 euro da gastu orokorretarako, hau da, 582.661,22 euro gehiago aurreko urteko epealdi berean baino; hori hein batean zor zaio UCC2B unitateko 1. lurzatia 453.149,02 eurotan saldu izanari. Horri esker, 2018an hainbat inbertsio eginen dira, betiere Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak finantzen iraunkortasunerako ezarri dituen baldintzak betetzen badira.

Diru-sarrera arruntak gorantz likidatzen direnez, lortu den aurrezki gordina aski da finantza-karga guztia estaltzeko, eta hortik heldu da aurrezki garbia ere positiboa izatea (1.016.855,21 euro).
Zor biziaren murrizketa garbia 368.488,06 eurokoa izan zen, aurreko urtearen aldean, ez baitzen kreditu-eragiketa berririk hitzartu. 2017ko abenduaren 31n, Udalaren zor bizia 2.688.347,23 euro zen, hau da, diru-sarrera arrunten % 30,62.



Las cuentas municipales de 2017

EL RESULTADO PRESUPUESTARIO FINAL FUE DE 616.269,67 €. El remanente de tesorería total para gastos generales asciende a 1.159.403,29 euros, un aumento de 582.661,22 euros respecto al mismo periodo del año anterior, en parte debido a los 453.149,02 euros obtenidos por la venta de la parcela 1 de la UCC2B. Este incremento permitirá realizar varias inversiones en 2018, siempre que cumplan con los requisitos de sostenibilidad financiera que exige la Ley de Estabilidad Presupuestaria.

Debido a que los ingresos corrientes se liquidan al alza, el ahorro bruto obtenido es suficiente para cubrir toda la carga financiera, y de ahí que el ahorro neto también sea positivo (1.016.855,21 euros).
La deuda viva en términos netos se redujo en 368.488,06 euros respecto al año anterior, ya que no se concertaron nuevas operaciones de crédito. A 31 de diciembre de 2017, la deuda viva del Ayuntamiento ascendía a 2.688.347,23 euros, lo que supone un 30,62% de los ingresos corrientes.

Jantoki bekak

Becas comedor

OINARRI BERRIAK Udalak oinarri berriak onetsi ditu jantoki beketarako. Orain arte kontuan hartu ez diren egoerak jaso dira, hala nola zaintza eta ardura partekatua. Ikusi oinarriak udal webean! (www.villava.es). Irailaren 28an itxiko da bekak eskatzeko epea.

NUEVAS BASES El Ayuntamiento ha aprobado nuevas bases para las becas comedor. Se recogen situaciones hasta ahora no contempladas, como la guarda y custodia compartida. ¡Consúltalas en la web municipal (www.villava.es! El plazo para solicitarlas finaliza el 28 de septiembre.

Eskaera egiten den unetik beretik Atarrabian erroldaturik dauden familiek eska ditzakete bekak, baina erroldaturik ere egon beharko dute laguntza jaso bitartean. Beste baldintza batzuk ere badira: beren ardurapeko haurrak Atarrabiako ikastetxeetan eskolatuak izatea, edota herritik kanpoko ikastetxeetan, herriko ikastetxeetan lekurik ez bazegoen. Horrez gain, ez dute behar adina diru baliabide propiorik izan behar, ezta laguntza soziofamiliar egonkorrik ere. Familia-unitatearen diru-sarrerek prestazioaren ehunekoa eraginen dute.

Podrán beneficiarse de estas ayudas las familias que estén empadronadas en Villava desde el momento de la solicitud y mientras se perciba la ayuda, y tengan a su cargo menores escolarizados/as en Villava o que formen parte del alumnado desplazado por excedente no admitido en los centros de la localidad. Además, deberán carecer de medios económicos propios suficientes y no tener un apoyo socio-familiar estable. Los ingresos de la unidad familiar determinarán el porcentaje de la prestación.

AXA
reinventando / los seguros
20% dto. en el seguro de hogar
¡Pídenos tu presupuesto!
SEGUROS DE AUTOMÓVILES
Visítenos con su póliza y el recibo actual y le haremos su estudio sin compromiso
Marcos Soto S.L.
C/ Padre Murillo, 2 bis
VILLAVA-ATARRABIA
948 572 062
646 751 170

FRENAUTO
FRENOS DEL AUTOMOVIL
Ricardo Bel, s/n
Tel. 948 33 24 33
31610 VILLAVA

EUSKARA | EUSKERA

Mintzakide

ELKARLANEAN IKASTEA. Mintzakide ekimenean parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute urriaren bukaerara bitarte Topagunean (Ribed parkea, 1). Euskaraz hobeki mintzatzeko ekimena da elkarrizketa taldeen bitartez. Izena emateko epea urriaren 1etik 28ra bitarte.

Mintzakide

APRENDIZAJE COLABORATIVO. Hasta finales de octubre pueden apuntarse en Topagunea (Parque Ribed, 1) las personas interesadas en participar en el programa Mintzakide, una iniciativa para mejorar el nivel de euskera a través de grupos de conversación. El plazo de inscripción será del 1 al 28 de octubre.

Euskarazko udalekuetarako laguntzak

IRAILAREN 28ra ARTE. Udalak euskarazko udalekuetarako diru-laguntza ematen du. Aurten, laguntza eskatzeko epea irailaren 28ra bitartekoa izanen da. Baldintzak Udalaren webean daude ikusgai; bestela, Euskara Zerbitzuan galdetuta. Nolanahi ere, honatx baldintza batzuk: Lehen Hezkuntzan edo DBHn aritzea, D ereduko ikaslea izatea (eskola publikoan edo ikastolan) eta Atarrabian edo Ezkabarten erroldatua egotea bai udalekuek iraun bitartean, bai laguntza eskatzeko tenorean, bai eta ebazpena eman arte ere.

Ayudas a los campamentos de verano en euskera

HASTA EL 28 DE SEPTIEMBRE. Hasta el 28 de septiembre se pueden solicitar en el Ayuntamiento las ayudas por la realización de campamentos de verano en euskera. El condicionado se puede consultar en la página web del Ayuntamiento o preguntando en el Servicio de Euskera. Entre los requisitos, ser estudiante de Enseñanza Primaria o ESO, ser estudiante de modelo D (en escuela pública o ikastola) y estar empadronado/a en Villava o Ezkabarte mientras dure el campamento y en el momento de solicitar la ayuda y hasta su resolución.

Haur eta gazteendako tailerrak

MATRIKULA. Karrikaluze Elkarteak epea ireki du aisia eta denbora libreko jardueretan izena emateko. Haur eta gazteendako ekitaldiak dira; zehazki, 8 urtetik 16ra urte bitarteko neska-mutilentzat. Ekimenak Udalaren diru-laguntza jasotzen du, eta helburua da neskato-mutikoak eta gazteak euskaraz jostatu eta mintza daitezela, eskola eremutik harata.
Hiru programa egiten dira: LARUNBLAI, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrentzat; JAUZI, 5. eta 6. mailakoentzat; eta ISEKA, DBHko gazteentzat.
Izena Karrikaluzeren egoitzan eman behar da, irailaren azken astearen inguruan (Ribed parkea 1, behea; -Iseka programarako, berriz, ikastetxeetako postontzietan-). Argibideak, 948355739 telefonoan, bulego orduetan.

Talleres para niños/as y jóvenes

MATRÍCULA. La Asociación Karrikaluze abre el plazo de matrícula para las actividades de ocio y tiempo libre dirigidas a la población infantil y juvenil. La oferta está dirigida a niñas, niños y jóvenes de edades comprendidas entre 8 y 16 años. El programa cuenta con una subvención del Ayuntamiento y su objetivo es que niños, niñas y jóvenes amplíen sus opciones de divertirse en euskera más allá del ámbito escolar. Son tres los programas que se llevan a cabo: LARUNBLAI, para niños y niñas de 3º y 4º de Primaria; JAUZI, dirigido al alumnado de 5º y 6º; e ISEKA, para los y las jóvenes de Secundaria.
La inscripción se realizará en el local de Karrikaluze alrededor de la última semana de septiembre.(parque Ribed 1, bajo -los de Iseka en los buzones de los centros escolares-). Más información, en el teléfono 948355739 en horas de oficina.

Helduak matrikulatzeko kanpaina

MATRIKULA. Urtero bezala, Atarrabiako Euskara Zerbitzuak kanpaina abiaraziko du helduak euskaltegietan matrikulatzera bultzatzeko. Kanpainan Nafarroako beste hogeita zazpi udal dira lankide, eta Nafarroako euskaltegiekin elkarlanean eginen da (AEK, IKA, Zubiarte euskaltegi publikoa, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala), betiere Nafarroako Gobernuak babesturik.
Gainera, azken urteotan bezalaxe, Euskara Zerbitzuak Atargi eta Paz de Ziganda ikastetxeetako gurasoak animatu nahi ditu euskara ikastera. Horretarako gutun bana igorriko zaie, Atarrabiako Udalak IKA Atarrabia euskaltegiarekin batera gurasoentzat berezko zer talde programatu dituzten jakinarazteko. Azalduko zaie, halaber, badagoela Udalaren diru-laguntza jasotzeko aukera, matrikulatzen badira.

Campaña de matriculación de adultos

MATRÍCULA. El Servicio de Euskera de Villava, junto con los servicios de otras veintisiete entidades locales, en colaboración con los euskaltegis de Navarra (AEK, IKA, Euskaltegi Público Zubiarte, Escuela Oficial de Idiomas de Pamplona) y con el patrocinio del Gobierno de Navarra, han puesto en marcha una campaña para animar a las personas adultas a matricularse en los euskaltegis.
Además, al igual que en los últimos años, el Servicio de Euskera animará a aprender euskera a los padres y madres de los centros Atargi y Paz de Ziganda, a quienes se enviará una carta con los grupos específicos para ellos programados por el Ayuntamiento junto al euskaltegi IKA Atarrabia. Se les informará, además, de la posibilidad de subvención del Ayuntamiento a los padres y madres que se matriculen.

Gazte Festak bi gune izanen ditu gazteentzat

ATARRABIAKO JAIAK. Gazte Festak alkoholik eta bestelako drogarik gabeko dibertsioa sustatu nahi du jaietan, gazteenen artean. Aurten bigarren aldiz eginen da eta, adinaren arabera, ekitaldi batzuk edo beste eginen dira.
Urriaren 11n, festa 16 urtetik gorakoentzat izanen da, Antso Jakitunaren plazan (22:00etatik 02:00ak arte). "Oilar-borrokak", karaokea, Dj, eta "0,0 lehiaketa" eginen dira, Atarrabiako 0,0 pertsonak saritzeko.
Hilaren 12an, berriz, festa 12tik 15 urtera bitarteko gazteentzat izanen da Gaztegunean (18:00etatik 24:00etara). Apar jaia, barredora, jolasak, Karaokea, Dj, eta beste izanen dira. Kerik eta alkoholik gabeko gunea izanen da.
Bi jarduera horiek ongi garatze aldera, helduen laguntza funtsezkoa izanen da, erreferente positibo gisa. Udalak herritarrei dei egin die leku eta ordu horietan alkoholik ez edatera, denon esku baitago gazteendako jai eredua aldatzen joatea.

La Gazte Festa contará con dos espacios para jóvenes

FIESTAS DE VILLAVA. La segunda edición de Gazte festa, una iniciativa para promover la diversión en fiestas sin alcohol y otras drogas entre los y las más jóvenes, se desdobla siguiendo un criterio de edad.
El jueves 11 de octubre la fiesta será para jóvenes a partir de 16 años y se ubicará en la Plaza Sancho el Sabio (de 22:00 a 02:00). Habrá concurso de pelea de gallos, Karaoke, Dj,... y "Concurso 0,0" con premios para las personas 0,0 de Villava.
El viernes 12 la fiesta será para jóvenes de 12 a 15 años en el Espacio Joven Gaztegunea (de 18:00 a 24:00). Habrá fiesta de la espuma, barredora, juegos, Karaoke, Dj... Será un espacio libre de humo y alcohol.
Para el buen desarrollo de estas dos actividades será fundamental la colaboración de las personas adultas como referentes positivos. Desde el Ayuntamiento se anima a que en estas zonas y horarios la población en general se absenga de consumir bebidas alcohólicas. En la mano de todos y todas está ir cambiambo el modelo de fiestas para los jóvenes.

Goian, gaztelaniazko kanpaldia Lorenzo Goicoan; behean, euskarazko kanpaldietakoak ibai aldean / En la imagen superior, campamento en castellano en Lorenzo Goicoa; abajo, una salida al río de uno de los campamentos en euskera.

Josteta eta ekitaldiak hiri-kanpaldietan

GAZTELANIAZ ETA EUSKARAZ. Guztira, 49 haur aritu dira gaztelaniaz, eta 41, euskaraz, hainbat txandatan, bi astez. Euskarazkoak Kultur Etxean aritu dira, eta gaztelaniazkoak, berriz, Lorenzo Goicoa ikastetxean. Ordutegia, 9:00etatik 14:00etara.
Era askotako gauzak egin dituzte, hala nola arte eta gorputz adierazpena, ingurumenari buruzko ekitaldiak eta beste. Astan behin, Atarrabiako igerilekura joan ziren.

Haur Sarearen batzarra

ATARRABIAN, IRAILAREN 21ean. Ikasturteko lehen bilkura izanen da, esperientziak elkarri kontatzeko, eta bestelako gaiak jorratzeko, hala nola irakasleen eta gurasoen arteko elkarlana, eta behar bezalako protokoloak ezartzea gorabeherak elkarrekin konpontzeko. Atarrabia, Ezkabarte eta Olaibarko Haur eta Nerabeak Babesteko Sarean kide dira adingabeekin ari diren erakunde profesional guztiak (ikastetxeak, Osasun Etxea, Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoa, Kirol alorra, Gazteria alorra, etab.).

Diversión y actividades en las colonias urbanas

CASTELLANO Y EUSKERA. Han participado un total de 49 niños y niñas en castellano y 41 en euskera, en varias txandas de dos semanas. La sede de la colonia en euskera ha sido la Casa de Cultura y el Colegio Lorenzo Goicoa la de castellanso. El horario, de 9:00 a 14:00,
Han realizado tareas muy diversas, desde expresión artística o corporal, hasta actividades relacionadas con el Medio Ambiente. Un día a la semana acudieron a las piscinas de Villava.

Asamblea de la Red de Infancia

EN VILLAVA EL 21 DE SEPTIEMBRE. En este primer encuentro del curso, además de intercambiar experiencias, se abordarán temas como el apoyo entre profesorado y progenitores y el establecimiento de protocolos para solucionar casos conjuntamente. La Red de Protección de la Infancia y Adolescencia de Villava, Ezkabarte y Olaibar está compuesta por todas las entidades profesionales que actúan con menores de edad (centros educativos, Centro de Salud, Servicio Social de Base, de Deportes, de Juventud, etc).

LABURRAK | BREVES

Ez dezatela dena irentsi!

PREBENTZIOA. Urtero bezala, garai honetan Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak gutun eta foileto bana igorri die 2003an jaiotako seme-alabak dituzten familiei, "Ez dezatela dena irentsi!" izenburupean, alkohol kontsumoari buruzko jarraibideekin.

¡Que no se lo traguen todo!

PREVENCIÓN. Como todos los años por estas fechas, el SSB ha enviado a las familias con hijos e hijas nacidos/as en 2003 una carta y el folleto "¡Que no se lo traguen todo!" con orientaciones sobre el consumo de alcohol.

Zazpi jaibus

JAIAK. Jaibus bat Elizondora (32 emakume eta 23 gizon); 2 Garesera (52 eta 40); 1 Etxarrira (16 eta 21); eta 3 Agoitza (86 emakume eta 79 gizon). Dena ongi atera da arduradunei esker: Mikel Iturralde, Xabier Zabalza, Andrea Lisarri, Nerea Jimenez, Sofia Prades, Miriam Pascal, Karmele Gurbindo, Ainara Frantzes, Unai Izuriaga eta Jokin Saldias.

Siete jaibuses

FIESTAS. Ha habido 1 jaibus a Elizondo (32 mujeres y 23 hombres); 2 a Gares/ Puente la Reina (52 y 40); 1 a Etxarri (16 y 21); y 3 a Aoiz (86 mujeres y 79 hombres). El mérito de que todo saliera bien ha sido de los y las responsables: Mikel Iturralde, Xabier Zabalza, Andrea Lisarri, Nerea Jimenez, Sofia Prades, Miriam Pascal, Karmele Gurbindo, Ainara Frantzes, Unai Izuriaga y Jokin Saldias.

LEHIAKETA // CERTAMEN. Joan den maiatzaren 30ean, DBHko ikasleendako narrazio eta kartel sariak banatu ziren. // El pasado 30 de mayo se entregaron los premios de narración y carteles para alumnado de ESO.

Ikastaro berria gurasoen eskolan

IZEN-EMATEA IRAILEAN. Seme-alaben hezkuntza sustatzeko trebetasunak eskuratu nahi dituzten gurasoendako ikastaro bat antolatu da Gurasoen Eskolan. Hainbat gai jorratuko dira, hala nola kalitatezko harremanak, nola indartu amaren edo aitaren rola, nola moldatu gatazkak, etab. Guztira zazpi saio izanen dira, urriaren bukaeran hasita. Izena irailaren 24tik 28ra bitarte eman behar da, eta ordutegia aukeratu daiteke (goizez edo arratsaldez), bai eta maiztasuna ere (astero edo hamabostero). Ikastaroaren prezioa 15 € da.

Solasaldia

Aurretik, ordea, Eskolak doako solasaldi bat antolatu du interesa duen jende guztiarendako, Kultur Etxeko ekitaldi aretoan. Hizlaria Antonio Ortuño izanen da. Gure seme-alabek teknologia nola erabiltzen duten izanen da mintzagaia.

Nuevo curso de la escuela de padres y madres

